

Arnas gaixotasunengatiko ospitaleratzeak %11,4 hazi ziren 2005ean


Ospitaleratzeako arrazoi nagusi diren zirkulazio-sistemako gaixotasunak %2,2 jaitsi ziren akutuen ospitaleetan

Eustaten datuen arabera, 2005. urtean arnas aparatuko gaixotasunengatik ospitaleratzeak %11,4 igo ziren Euskal AEn, akutuentzako ospitaleetan. Horrenbestez, ospitaleratzeako arrazoiaren artean, arnas gaixotasunak laugarren daude (seigarren 2004an). Horien artean, alde batetik bronkitis kronikoa eta pneumonia nabarmentzen dira gaixotasun ugarienen artean, eta, bestetik, 2004. urtearen aldean, gripeagatiko ospitaleratzeak laukoiztu egin ziren.

2005. urtean, 280.441 ospitaleko alta egon ziren: 222.398 pertsona ospitaleratuta egon ziren edo tratamendua jaso zuten akutuentzako ospitaleetako eguneko unitateren batean. Alteen ehunekoa aurreko urtean baino %1,3 handiagoa izan zen. Batez beste ospitalean egondako denbora 5,5 egun izan ziren (5,4 egun 2004an).

2005ean mediku-alta jaso zutenen %76, ospitale publikotan egon ziren, eta %24 ospitale pribatutan. Sexuaren arabera, pertsonen %51 emakumezkoak izan ziren, eta %49 gizonezkoak. Hori bai, haurdunaldiak eta erditzeak sartzen ez badira, gizonezkoen ehunekoa %53,4ra igotzen da. Ospitaleratzen diren gizonezkoen artean gehienbat 73 urtekoak daude. Aitzitik, emakumezkoen artean 78koak (haurdunaldia eta erditzea kontuan hartu gabe).

1. grafikoa.- Akutuen ospitaleetan alta emandako pazienteak, sarrien ematen diren diagnostiko-taldearen arabera, 2004-2005



Iturria: EUSTAT

Ospitaleratzeako arrazoi nagusi izaten jarraitzen duten zirkulazio-sistemako gaixotasunak alta guztien %12,6 izan dira 2005ean (2004an %13,1). Beraz, %2,2 jaitsi dira 2004. urtearen aldean. Talde horretan gehien diagnostikatutako gaixotasunak honako hauek izan ziren: gutxiegitasun kardiakoa, ateriosklerosi koronarioa, zain barizedunak eta arritmiak.

Ospitaleratzeako bigarren arrazoa digestio-aparatuko gaixotasunak izan dira, alta guztien %11,5ekin. Gaixotasun arruntenak hauek izan dira: izterrondoko etena (%15,6), behazun-harriak (%15,3) eta apendizitis akutua (%7,3).

Eguneko ospitaleek **nerbio-sistemako eta zentzumen-organoetako gaixotasunen** tratamenduetan duten garrantzia ikusita (begi-lausoak bereziki), gaixotasun horiek **hirugarren daude** alta guztien %9,8rekin. Arnas aparatuko gaixotasunen ehuneko bera dute, eta azken horiek laugarren tokian daude, tumoreen (%8,9) eta haurdunaldiko, erditzeko eta erditze ondoko arazoaren (%8,8) aurretik.

Heriotzen ehunekoa %2,9 izan zen. Hiltzeko adinik arruntena 74 urte izan zen gizonezkoen artean eta 85 emakumezkoen artean. Hona hemen arrazoi nagusiak: gutxiegitasun kardiakoa (lehen arrazoa emakumeen artean), pneumonia, eta trakeako, bronkioetako eta biriketako neoplasia gaiztoa (lehena gizonezkoen artean).

Berriz ospitaleratzeko direnen tasa %5,7koa izan zen. Tasa horrek zerikusia du batez ere zenbait gaixotasunen tratamenduarekin, hots, kimioterapia-tratamenduarekin (mantentze-kimioterapia) eta bronkitis kroniko buxatzailearen tratamenduarekin. Ospitalean emandako egunen batez bestekoa 3,9 egun eta 9,3 egun izan dira hurrenez hurren.

Zirkulazio-sistemako gaixotasunak izan ziren ospitaleratzeen lehen arrazoa gizonezkoen artean eta hirugarrena emakumezkoen artean.

Maizago gertatzen diren gaixotasunen hurrenkera ezberdina da sexuaren arabera. Esan dugunez, gizonezkoen artean zirkulazio-aparatuarekin zerikusia duten gaixotasunak izan dira ospitalean sartzeko lehen arrazoa, eta horren atzetik datoz digestio-aparatukoak eta arnas aparatukoak. Emakumezkoen artean, zirkulazio-aparatuko gaixotasunak hirugarren tokian daude, haurdunaldiko, erditzeko eta erditze ondoko gaixotasunen, eta nerbio-sistemako eta zentzumen-organoetako gaixotasunen atzetik.

Adin-taldeak kontuan hartuta, 0-14 urteko biztanleen artean gehien diagnostikatutako gaixotasunak amigdalitis kronikoa eta adenoideak izan ziren. 15-44 urtekoen artean, belauneko barrualdeko arazoak eta apendizitis akutua, gizonezkoetan, eta haurdunaldia eta erditzea, emakumezkoetan. 45-64 urtekoen taldean, izterrondoko etena nabarmentzen da gizonezkoetan, eta neuropatia multifokala eta zain barizedunak emakumezkoetan. 65 urtetik gora dutenen artean, begi-lausoak da gehien diagnostikatutako gaixotasuna, eta horren atzetik bronkitis kronikoa gizonetan eta osteoartrosia emakumezkoetan.

65 urte baino gehiagokoan, begi-lausoaren ebakuntza izan da sarrien eginiko ebakuntza kirurgikoa

Begi-lausoak, nerbio-sistemako eta zentzumen-organoetako gaixotasunen taldean sailkatutako gaixotasuna, ez da soilik akutuen ospitaletan gehien diagnostikatzen den patologia. Horrez gain, ebakuntza kirurgiko gehien eragin dituen gaixotasuna da,

ospitale publikoetan gehienbat (%85,7). Horren atzetik datoz erditzean egindako zaintzak eta aldakako nahiz belauneko protesia ipintzea.

Hona hemen **gehien egindako ebakuntza kirurgikoak, adin-taldeen eta sexuaren arabera**: 0-14 urte dituztenen taldean, amigdalaren eta adenoideen nahiz apendizearen ebakuntzak; 15-44 urtekoen taldean, belauneko ebakuntzak gizonezkoetan eta prozedura obstetrikokoak (erditzean laguntza ematea edo erditzea eragitea) emakumeetan; 45-64 urtekoen taldean, hernia konpontzea gizonetan, eta ume-tokiko eta bularreko ebakuntzak emakumeetan; eta 65 urtetik gora dituztenen taldean, begi-lausoaren ebakuntza.

1. taula.- Alta hartutako pazienteak, diagnostiko-talde handien arabera, 2004-2005 urtea.

	Urteak		Δ %
	2004	2005	
Guztira	276.728	280.441	1,3
Zirkulazio-sistemako gaixotasunak	36.205	35.391	-2,2
Digestio aparatuko gaixotasunak	32.504	32.118	-1,2
Nerbio-sistemako eta zentzumen-organoetako gaixotasunak	27.690	27.416	-1,0
Arnas aparatuko gaixotasunak	24.595	27.402	11,4
Neoplasiak (tumoreak)	24.823	24.843	0,1
Haurduntzako, erditzeko eta erdiberriaroko konplikazioak	24.780	24.701	-0,3
Sistema osteo-mioartikularreko gaixotasunak	24.000	23.285	-3,0
Lesioak eta pozoidurak	21.414	21.221	-0,9
Aparatu genito-urinarioko gaixotasunak	16.480	16.147	-2,0
Gaizki definitutako sintomak, zeinuak eta egoerak	12.004	12.653	5,4
Trastorno mentalak	4.991	5.048	1,1
Gaixotasun endrokino, nutrizional eta metabolikoak	4.053	4.092	1,0
Larruazaleko eta azalpeko ehuneko gaixotasunak	3.777	4.081	8,0
Infekzio- eta parasito-gaixotasunak	3.914	3.592	-8,2
Odoleko eta organo odol-sortzaileetako gaixotasunak	2.641	2.999	13,6
Sortzetiko anomaliak	2.340	2.401	2,6
Jaiotza-inguruko aldian sortutako gaixotasunak	1.767	1.822	3,1
Beste batzuk	8.750	11.229	28,3

Iturria: EUSTAT

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Fax:+34-945-01 75 01 Posta elektronik.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Maite Ugarte

Tel.:+34-945-01 75 47 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp